Eta udaletxeak baino goragoko maila batean, beharizana igarrita, arazo nazionala izan beharko litzatekeen Ikurriña berri baterako proposamen batzuk ere badira martxan Euskal Herrian zehar. Hemen hauetako proposamen batzuk ere badira gurean

(Web informazio iturriak: Biltzarre, Naziogintza, Sustatu, naiz, etab.):

<https://sustatu.eus/1569420839>

<https://www.naiz.eus/eu/blogs/irudikatzen/posts/euskal-ikur-nazional-berri-baterako-proposamena>)

Ikurriña berri baterako beste proposamen batzuk, Nabarrina (lehen irudia) beraien artean:





Beste batzuk:

 <p>ABC egunkaria</p>	 <p>Egileari buruzko informaziorik ez</p>	 <p>2012 Achilleas Tsomkopoulos</p>
 <p>2017 Askatasunaren bandera Patxi Aldaburu</p>	 <p>Ikurrina eta Zazpiak bat</p>	 <p>(Ez dugu irudi osoa lortzerik izan)</p>



- “ Mofa a todos los navarros” , navarra.com :



Bada, hasieran Arana Goiritarren Euzkadiko lehen banderari gurutze zuria kenduta aurkeztu duenik ere:



Edo beste proposamen hauek ere aurkitu dira Interneten:



<http://nabarlur.blogspot.com/2019/05/> Bostak bat. Armarrri proposamena



S. XVI



S. XIX



S. XX

Egoera berri bat irudikatu ahal izateko Katalanek izar bat jarri zioten euren banderari, Estelada sortuz. Burujabetasunaren bila doan herri bat direla adierazteko. Naziogintza taldeak ere izarra gehitu dio Ikurriñari egoera berri hori islatzeko eta Ezkurra anaiek Nafarrokoari ere.



Ikurrina Berriak biltze gaitasuna izan beharko luke euskal gizartearen aniztasuna aintzat hartuz. Historian zehar **Espainiatik etorritako** komunitateenak. Batez ere, orain dela 100 urte masiboki hasiera eman zitzaionetik gaurdaino. Herri honetan lan eta bizi herria egiten lagundu dutenentzako nazio bat. Fronte zabal bati eskua luzatuz. Bidean atzean inor utzi gabe.

Xabier Aierdi Urazaren artikulu interesgarri bat irakurtzeko gai honen gainean: <http://www.euskonews.eus/0101zbk/gaia10101es.html>


Euskal gizartean aurkitu daitezkeen egoera batzuk:

- Ezpeletako (Lapurdi) emakume bat bertako ostatu batean tabernaria, bere gurasoak espainiar etorkinak dira baina bere semea ikastolara eramaten du eta berak gau eskolan euskara ikasten du. Lauburuaren lepokoa zeraman soinean.
- Bilbora etorri ziren Galizar senar-emazteen alabak euskaraz D ereduan ikasi du. Haurtzaroan urtero joaten zen gurasoekin Galizara oporrak pasatzera. Aitonak Galizarrez hitz egiten zion eta berak erderaz erantzun. Gaur egun Lauburuarekin ere identifikatua sentitzen da.
Bilbon bizi eta lan egiten duen Hego Amerikako batek erakutsi zidan lauburuaren lepokoa soinean zeramala, atsegin zuelako.

Ikurrina Berriaren bertsio desberdinen sinbologiak gaur eguneko euskal komunitatean eroso sentiarazteko aukerak emango lizkieke.

Pentsaera zabalenak Ikurrina Berrian ehuntzeko aukerak:

- Tamalez oraindik gaur egun dagoen sexuen arteko desorekaren aurkako borrokan:



Gure aintzinako euskal arbasoen garaian, gizartearen antolamenduan emakumeek ere hitza omen zuten, Erdi Aroraino luzatzen delarik (Alberto Santana, “Una historia de Baskonia”). Espainiako Fernando Katolikoa Gernikako arbolara etorri zenean (1476) emakumeak ere bertan ziren:



Aintzinako euskal mitologian, Jainkoen izaera femeninoa zen ezaugarri berezietako bat: Amalur, Eguzki Amandrea, Ilargi Amandrea...

Mari, Europa zaharreko kultura matriarkalen jainkosa aintzinakoetako bat da, beharbada, Mari, izan ere, kultura zeltetako jainko zerutiarren aurrekoa da, eta baita kristautasunaren aurrekoa ere. Beraz, Mari Anderea, ziurrenik, gure hastapenetako kultura, hezkuntza eta lengoiararen andereñoa izan da. Neolitoko Andere kosmikoa (Madaleine –15.000 ostekoa–) eta Paleolitoko Andere Gurena.

Maju edo Sugaar jeinuarekin ezkonduarik dago. Bi seme ditu, Mikelats (zintzoa) eta Atarrabi (gaiztoa); ongiaren eta gaizkiaren arteko oreka irudikatzen dute.

Elezaharraren arabera, bizitzaren hasieran, Lurra ilunpean zegoen garaian alegia, gizakiek erreguka eskatu zioten Mariri mehatxatzen zieten espiritu eta numen gaiztoen kontra borroka egiten lagun ziezaien...

Nekane Juradok idatzitako liburu interesgarri bat: “Lucharon contra la hidra del patriarcado: Mujeres libres”

<http://www.durangon.com/la-escritora-nekane-jurado-hablara-esta-tarde-amorebieta-la-lucha-patriarcado/>

«Estas mujeres no solo lucharon (desde el siglo XVIII hasta la guerra civil) contra la desigualdad de género, que aún impera en nuestra sociedad, sino que además, con gran clarividencia entendieron y expresaron que el resto de desigualdades sociales, principalmente la lucha de clases, solo podrán ser superadas si sus luchas van juntas, puesto que la opresión de género y la explotación de clase son en realidad dos cabezas de la misma hidra».

- Edo bestelako aldarrikapenatarako, aukera zabala eskainiko luke Ikurriña berri honek:



Ohar bat: Arrano beltzaren atzekaldea gorria jatorrian gorria omen zen:

<https://nabarralde.eus/es/arrano-beltza-y-la-bandera-colorada/>

https://es.wikipedia.org/wiki/Arrano_Beltza



Orreagako kolegiatan



- Edo Espainiako Guda Zibilak eta ondorego diktadurak basatiki zapaldukoentzat. Espainiako Erreinua baino bestelako proiektu helduago batzuk defendatzen dituztenentzako ere bere lekua emanez:



- Alderdi politiko batzuentzako zirriborroak egitera ausartuz:

EAJ-PNV



EhBildu



Eusko Alkartasuna



PSE



- Eta abar...

Ikurrina Berriak, begirunez onartu ahalko lituzke bere baitan bestelako proiektuetan sinisten dituzten euskaldunak ere. Luzaroan elkarrekin bizi izan diren bi komunitatetan jantzia izatearen aberastasuna dotoreziaz agertuz.

Aberri egun bateratuaren ametsa

Gaur egun Euskal Autonomi Erkidegoan toki desberdinetan banaturik ospatzen dugu urtero Pasko Igandean Aberri eguna. Hala ere Interneten honakoa aurki genezake: *“Es muy curioso, pero seguramente Euskadi será la única comunidad autónoma sin fiesta oficial. Las demás autonomías tienen un día importante en su historia o el día de la promulgación de su estatuto de autonomía, pero aquí el Gobierno Vasco delega en las diputaciones, que ponen cada uno el suyo: San Ignacio en Bizkaia y Gipuzkoa y San Prudencio en Álava. Al contrario de lo que dice la Wikipedia (y seguramente los partidos nacionalistas quisieran) el Aberri Eguna no es la fiesta oficial de Euskadi.”* <https://gananzia.com/fiesta-simbolos-oficiales-euskadi>

1932an, Eusko Alderdi Jeltzaleak (PNV) Aste santuko katolikoko Pazko Igandean ospatzea erabaki zuen (Egutegiko egun finko gabe) lehen aldiz. Zenbaitzuk diotenez Sabinok hau idatzi omen zuelako:

«Pero el Domingo de Resurrección de 1882, ¡bendito el día en que conocí a mi patria!...»

Ordutik aurrera gaur egun arte, ospatzen da udaberriko opor garaiko igande horretan. Asko oporretan daudelarik, indar sakabanaketa gertatuaz.

Nafarroako erkidegoak ere badu berea, San Frantzisko Xabier euskaldunarena, abenduak 3an, euskararen eguna.

Baina lehen Aberri Eguna baino hiru hamarkada lehenago esan daiteke hasi zela Euskal abertzaletasun mugimenduaren hazia, euskara eta kultura oinarri zituela:

Euskaltzaleen Biltzarra (1901):

Euskaltzaleen Biltzarra euskara eta euskal kultura babestu eta bultzatzeko elkarte izan zen, Euskal jaiak eta euskal literatura lehiaketak antolatu zituen eta eragin handia izan zuen XX. mende hasierako "Euskal Pizkundearen" indartzean. 1901ean Hondarribian egindako bilera batean *Eskualtzaleen Biltzarra* sortu zen Landarretche apaiz idazle Benafarraren ekimenez.

Bertan bildu zirelarik garai hartako itzaldun pertsona, besteak beste: Guilbeau Oiartzabal (mediku eta Donibane Lohizuneko alkate), Gracián Adema (kalonjea), Ahetz-Etcheber (irakaslea), Arturo Campión (Iruñeko idazle hizkuntzalari eta politikaria), Julio Urkixo (Bilboko idazle eta zuzenbidean doktore), Juan Carlos Guerra (Donostiako historialari eta legegizona), Isaac Lopez Mendizabal (Tolosako idazle eta politikaria) eta Serapio Mujika gipuzkoar historialaria.

Bigarren bilera batean, 1902ko irailaren 11an, Hondarribian taldeari beste hainbeste itzal handiko pertsonak batu zitzaizkien, Arana Goiri Bilbotarrak besteak beste. Hala nola Resurrección Maria Azkue (Apaiz, idazle eta musiko Lekeitiarra) Jaurgain (historialaria), Georges Lakombe (iparraldeko euskaralaria), Joseba Eizagirre (mugaren alde bietako idazle eta politikaria), Basilio de Iraizoz (idazle eta abadea), Daranatz (kalonjea), Barbier (idazlea), Broussain (Hazparneko alkate eta medikua), Etienne Decrept (idazle eta margolari Lapurtarra), Andurain de Maitie (Zuberoako idazlea) eta Larreta diputatua.

Lehen bilkura handia izan zen Hondarribiako. Bertan eman zitzaion izena, “Euskaltzaleen Biltzarra”, geroztik atxiki duena.

Ikuspuntu estrategiko batetik Aberri eguna kataluniarrekin batera Diadaren egun berean ospatuko balitz, irailaren 11an (edo hurrengo igandean, denok bertaratu ahal izateko). Guztiok batera 10 milioiko biztanleren sinergiak sortzeko aukera paregabea genuke.



Mediatikoki gogoangarriak diren irudiak.

Las esteladas y una ikurfla ondean durante una Diada de Catalunya, en una imagen

Zergatik Hondarribia izan daitekeen Aberri Eguna ospatzeko leku apropos bat?

1901. urtean *Euskaltzaleen Biltzarra* nagusia ospatu zen hirian. Euskaldunok hain bere ditugun Kantauri itsasoaren ertzean eta Pirinioen mendebaldeko lehen tontorra den Larrun mendiaren magalean. Gaur egun horren aldenduak dauden Iparralde, Hegoalde eta Nafarroaren elkartzen diren tokian Nafarroako erresuma zenaren azken portuan: Hondarribiako hiria. Txingudi badian beltzargak eta beste hegazti askok atseden hartzen duten paduran kokatua.

Hondarribia, Bidasoa ibaiaren bokalean kokaturik, toki bereziki polita eta lasaia da. Halere, erreinu arteko mugan kokatuta dagoenez, funtzio oso nabarmena izatera egon da behartuta mendeetan zehar.



Gaur egun, iragan heroikoaren hainbat aztarna daude hirigune historikoan. Izan ere, Euskadin hain ondo kontserbatutako gotorleku bakarra da.

Erromatarrek bertara iritsi zirenean, Estrabonek esandakotik ondoriozta daitekenez, baskoien itsasaldeko azken lurraldeetako bat zen, Oiassoren inguruan. Jaizkibeleko harrespil piriniotarrek baieztatzen dute harreman etniko hori. (ikus Oiasso Erromatar museoa).

100. urtera arte Nafarroa izan zen. X. mendetik zutik dirauen Iruñeko Santxo erregearen gaztelua lekuko:



Erdi Aroan eta Aro Modernoan bertatik itsasoratzen ziren Gaztelako eta Nafarroako gari, ardo, metal...Flandesko eta Europako beste lurretako portu askotarako. Juan Sebastian Elkanok urrezko sei dukateko dohaintza egin zion bertako Guadalupeko baselizari.


Herri baserritarra izateaz gain, portua ere badauka. Beste hogeitamarren bat herri arratzale euskaldun bezala:



Trenez, hegoaldeko, zein iparraldeko hiriburuak lotzen dituen bidegurutzea da.



Aldi berean Txingudi badia elkar oso ondo komunikaturik dago, Irun eta Hendaia beste aldean dituelarik:



Euskal herriko errepide nagusien elkargune: N-1, A-8, N121A eta A63, Europarako atea.



Badauka kirol-portu bat ere:



Eta hori gutxi balitz, Hondarribiak aireportua ere badauka:



Egun polita zatekeen udaren azkenean, horren ongi komunikaturik dagoen Hondarribian, euskal kulturaren aldeko pertsona haundi hauei omenaldia egiteko bide batez. Abertzaletasuna berpiztu zutenak XIX. mendean.


Azkenik ohartu behar Herriko jaiak ospatzen ari dira eta irailaren 11an. Baserritarren eguna dela hain zuzen. Hondarribian tamalez ezagunak ditugu jaietan Alarde Mixtoaren gaineko azken urteetako liskarrak, bertan sortuko litzatekeen jai giroa, auzi hau behingoz konpontzeko probestu zatekeen.

Beraz, itzela litzateke 1902ko irailaren 11an bezalaxe, mugen gaindi Hondarribian bilduko bagina, gisa guztietako abertzaleok Aberri Eguna bertan ospatzeko.

Kaleko aldarrikapenatarako pankarta eredu baterako aproposa den diseinua:



Alaitasunez baina tajuz, begirunezko era asertibo batean, armoniazko batasuna irudikatuz:



Elkartasunezko gizarte osasuntsu baten irrikan, bizirik dagoen nazio heldu bat munduan.

*Euskaradunak, biztanle bakoitzari bere euskara maila posible zaion eran



Eta nola ez, **kirolean**, euskalduntasuna azaltzea horren gustuko izaten dugun komunitate festan, probintzien arteko lehiakortasunarekin batera, euskalduntasuna heldutasunez azaltzea. Adibidez Athletic-Alaves-Erreala-Osasuna futbol partiduko giro batean, argiago legoke zein probintziatako Ikurrina Berria animatzen dugun:



Edo errugby-an, Baionako Arrauna (Aviron Bayonnais) edo Barritz-Olympique taldeek jokatzen duenean:



Edo Euskal Selekzioak jokatzeko duenerako, Euskadi, Nafarroa eta Iparraldeko jokalaririk onenekin:



Ereserki nazionala

*“Aintzina suak gure arbasoen haitzuloei bezala, arteak bizitzari argia ematen dio. Gure testuinguruaz eta gutaz mintzo zaigu. Gogoan dut musika. Haur nintzela, belarritik irristatu eta eskutik helduta eramaten ninduen, begi-bistan nuen mundutik haratago. Argia begietara bezala, erraitaraino sartzen baitzaigu musika, bihotzeko lau hormetako **argi-itzalak** indartuz.*

“Ezinezko ametsak zenbaitetan gauzatzen dira”

“Sua. Sutagar eta gu” Alex Tello eta Julen Ribas

Ikurriña eta Nafarroako banderarekin gertatzen den bezala, ereserkiarekin berbera gertatzen da, ez da ereserki bat guztiz adostu denik. Ikurriñari loturiko ereserki bat izateak aparteko indarra transmitituko lioke, eta gainera dantzatu ahalko balitz hainbat hobe.

Euskal Autonomi Erkidegoko ereserkia gaur egun *Gora ta Gora* deitua; jatorrizko izena, *Euzko Abendaren Ereserkija*, antzina dantza ekitaldiei hasiera eman aurretik jotzen zen doinua da. Hitzak berriagoak dira, Sabino Aranak sortu eta idatziak. Abenda hitzak arraza esan nahi du. 1983ko apirilaren 14an, Eusko Legebiltzarrak Euskadiko ereserki ofizialtzat onartu zuen doinu hau. Hala eta guztiz ere, jende asko horren kontra azaldu zen, ereserkitzat nahiago baitzuen Jose Maria Garateren Eusko Gudariak edota Jose Maria Iparragirrereren Gernikako Arbola .

*Gora ta Gora Euzkadi
aintza ta aintza
bere goiko Jaun Onari.
Areitz bat Bizkaian da
Zar, sendo, zindo
bera ta bere lagia lakua
Areitz gainean dogu
gurutza deuna
beti geure goi buru
Abestu gora Euzkadi
aintza ta aintza
bere goiko Jaun Onari*

Edo Nafarroako Foru Erkidegokoa:

*Nafarroa, lur haundi
ta azkar beti leial,
zure ospea da
antzinako lege zarra.*

*Nafarroa, gizon
askatuen sorlekua,
zuri nahi dizugu,
gaur kanta.*

*Gaiten denok bat,
denok gogo bat.
Bein betiko
iritsi dezagun
aintza, pake eta maitasuna.*

Gernikako Arbola

Jose mari Iparragirre olerkari eta abeslari bohemioak 1853an konposatutakoa. Mende eta erdiz, gure herrialde osoan kantatu da “Euskal Herriko ereserki nazionala”. Halaxe deitu zion Iturralde Suitek, bertzeak bertze. Jose Mari Espartzak bere lan batean agerian utzi duenez, mota guzietako jendeak, ideologia guztietakoak, abestu izan du Ebrotik Aturrira, kultura, gizarte eta politikako mota guztietako adierazpenetan.

Gernikako arbola
da bedeinkatua
Euskaldunen artean
gutziz maitatua.
Eman ta zabal zazu
munduan frutua
adoratzen zaitugu
arbola santua

Mila urte inguru da
esaten dutela
Jaunkoak jarri zuela
Gernikako arbola.
Zaude bada zutikan
orain da denbora
eroritzen bazera
arras galdu gera

Ez zera eroriko
arbola maitea
baldin portatzen bada
Bizkaiko Juntia.
Laurok hartuko degu
pakian bizi dedin
euskaldun jendia.

Betiko bizi dedin
Jaunari eskatzeko
jarri gaitzen danok
laister belauniko.
Eta bihotzetikan
eskatu ezkerro
arbola biziko da
orain eta gero.

Arbola botatzia
dutena pentsatu
denak badakigu.
Ea bada jendia
denbora orain degu
erori gabetanik
eduki behar degu.

Beti egongo zera
uda berrikoa
lore aintzinetako
mantxa gabekoa.
Erruki zaite bada
bihotz gurekoa
denbora galdu gabe
emanik frutua.

Arbolak erantzun du
kontuz bizitzeko
eta bihotzetikan
Jaunari eskatzeko,
gerrarik nahi ez degu
pakea betiko,
gure lege zuzenak
hemen maitatzeko.

Erregutu diogun
Jaungoiko Jaunari
pakea emateko
orain eta beti.
Eman indarra ere
zerorren lurrari
eta bendezioa
Euskal Herriari



Eusko gudariak

abestia: Gerora EAJko Euskadi Buru Batzarreko presidente izango zen Jose Maria Garatek idatzi zuen kanta, 1932an. Oinarritzat, Atzo Bilbon nengoen arabar abesti tradizionalaren doinua hartu zuen.[1] Gerra zibilean, Alejandro Lizaso kapitainak letra aldatu zion azkeneko estrofari kutsu borrokalariagoa emateko.

Gerra Zibilean eta baita frankismoaren garaietan ere Euskal Herriko ereserkitzat hartu zuen, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak 1936an Eusko Abendaren Ereserkia (Gora ta gora) doinua hautatu. 1983an, Euskal Autonomi Erkidegoko bandera eta ereserkia erabaki zituztenean, Eusko gudariak izan zen ereserkia izateko aukeretariko bat (Besteak Gernikako arbola eta Eusko Abendaren Ereserkia ziren). Dena dela, Eusko gudariak oraindik erabili egiten da ereserki modura sektore batzuetan, esate baterako Ezker abertzalearen ekitaldietan.

*Eusko Gudariak gara
Euskadi askatzeko,
gerturik daukagu odola
bere alde z emateko.*

*Irrintzi bat entzun da
mendi tontorrean
goazen gudari danok
Ikurriñan atzean.*

*Faxistak datoz eta
Euskadira sartzen
goazen gudari danok
gure aberria zaintzen...*

*Gure aberri laztanak
dei egin dausku ta,
goazen gudari danok
izkiluak hartuta.*

*Arratiarren borroka
izan da Intxortan,
Mola ta erreketek
gelditu dira bertan.*

*Ikurriña goi-goian
daukagu zabalik,
ez da mundu osoan
eratsiko dabenik.*

*Nahiz ta etorri Mola
ta mila (er)reketek,
ez da inor sartuko
bizirik garen arte.*

*Agur Intxorta maite
gomutagarria,
Arratiako mutilen
garaitzaren tokia.*

*Ez da sartuko inor,
ez Euskal Herrian
eusko gudariren bat
zutik dagon artian.*

Bertso eta poema abestu batzuk:

- ZAZPIAK BAT
(Pedro Mari Otaño Barriola, 1857-1910)

*Zazpi ahizparen gai dan oihala ebakirikan erditik,
alde batera hiru soineko utzirikan, lau bestetik
guraizeakin berezi arren bakoitza bere aldetik,
ezaqutzen da jantzi dirala zazpiak oihal batetik.*

*Oihaltzat hartu zagun euskera, guraizetza Bidasoa,
ibai koxkor bat besterik ez da, hutsa balitz itsasoa:
elkarren hurbil daude zazpiak, muga deitzen da Pausoa,
zergatik izan behar ez degu famili bakar osoa?*

*Arbola baten zainetatikan sortzen diran landareak
bezela gera, Bidasoaren bi aldetako jendeak:
berdinak dira gure jatorri, ohiturak eta legeak,
Ama Euskerak magal berean hazitako senideak.*

*Ama Euskera! bere semeak gu Ameriketan zenbat
arkitzen geran! Ta urrutitik maiteago degu hanbat:
hemen ez dago Bidasoarik ta beste trabik han hainbat;
Ama maitea indartu dedin, bizi bedi Zazpiak Bat.*

(Oharra²: Nafarroa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Zuberoa eta Diasporakoak, zazpigarren herrialdea bezela adibidez)

- Edo Gontzal Mendibilen abestia herrikoi bihurtu dena. "Nahiz eta hitz ezberdinez" oinarri bat badela (Ba gara, gare, gira, gera) euskal probintzietako euskalkietan: (Hitzak:Bittor Kapanaga Elortza (1925-2011)

*Araban bagare
Gipuzkun bagera
Xiberun bagire
Ta Bizkaian bagara
Baita ere, Lapurdi ta Nafarran.*

*Guziok gara eskualdun
guziok anaiak gara
Nahiz eta hitz ezberdinez
Bat bera dugu hizkera.*

*Bagare, bagera
Bagire, bagara
euskera askatzeko
oraintxe dugu aukera*

Araban bagare...

*Herri bat dugu
osatzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi hondatzen.*

*Bagare, bagera,
bagire, bagara
Euskadi askatzeko
oraintxe dugu aukera.*

Axuri beltza

Lauburu zuri-beltzarekin lotu daitekeen abesti bat badaukagu dagoeneko Euskal herrian, Nafarroako Jaurrietako *Axuri beltza* dantza herrikoi **abestua** hain zuzen. (google: Nafarroako dantzen atlasa, Jaurrietako neska dantza). Musikaren aldetik, Mutil-dantza generoari dagokio baina neskek dantzatzen dute bitxiki.

Aintzinako dantza honen jatorria Nafarroako Zaraitzuko Jaurrieta udalerrian dago. Juan Antonio Urbeltz nafar folkloristak, Zaraitzu haraneko Jaurrietako emakumezkoen Axuri dantza eta Baztan haraneko Lekaroz udalerriko Zikiro Beltza doinua uztartu edo elkartu zituen. Bi pasarte ditu beraz. Bernardo eta Jose Estornes anai argitaratzaile eta jakintsuek Urbeltzi jadanik Azkueren Antzinako Euskal Kantutegian jaso zegoela erran zioten.

Doinua: Zortziko handian

Musika tresnak: Horren bereganatuak ditugun musika tresnak erabiltzen ditu: Txirula eta Soinua. Zortziko handiko erritmo honi txalapartak ere txukun lagun liezaioke (Ikus adibidez Youtuben *Txalaparta dantza*)

Abestiaren hitzak:

*Axuri beltza ona dut bainan
xuria berriz hobe,
dantzan ikasi nahi duen horrek
nere oinetara begira.
Rai ta rai...
Zertan ari haiz bakar dantzatzen
agertzen gorputz erdia?
Su ilun horrek argitzen badik,
agiriko haiz guzia.*

Eraz ikasteko hitz hauek, zentzu metaforiko bezala ulertu daitezke:

- *Axuri beltza*: Arestian azaldu den dualtasun unibertsala.
- *Ona eta hobe*: Hobekuntza etengabea. Zuria hobe izan arren beltza ere ona dut. Lanaren emaitza ona eta ekinaren hobe.

Kirmen Uriberen *Izurdeen aurreko bizitza*, Rosika Schwimmer bakezale eta feministari buruzko eleberrian, Albert Einsteinek New York-eko Albany Unibertsitatean eman zuen hitzaldi batean esandakoen artean hau aipatzen du: "*Kontua ez da hobe izatea, ona baino. Eta beti komunitatearentzat onena bilatzea. Alegia, zientzialari onak, idazle onak, langile onak dituen gizarte batek berez egingo du aurrera. Komunitaterik gabe ez dago askatasunik*".

- *Dantzan*: Gorputz espresio tresna zintzoa. Mugimendua adierazten du bai fiskoa bai irudikaria izan daitekeena. Bizipoza.
- Begiratu (ez begiekin soilik), eta ikasi dakitenengandik.
- *Zertan bakarrik dantzen?* Talde girora hurbiltzen duena. Adiskidetasuna goratuz... Auzolana, batzarrea...komunitatea azken finean.
- *Argitu*: Bizitzako ikuspegia izatea, xedea izatea, esperantza
- *Agiriko haiz guztia*: pertsona oso, heldutasuna, zoriontasuna...

Gainera jatorrizko abestiaren hitzak bi estrofa dira soilik, beraz tartea uzten du estrofa berriak sartzeko. Askatasunari, bakeari, itxaropenari, gizateriari, begiruneari, elkartasunari... buruzko gaiak sartzeko.

Kristautasunean: Joaquin Lizarraga, XVII. mendeko Jesuita euskaltzaleak, bere liburuetan Jainkoaren *axuria* hitza erabiltzen du. Adibidez: “*Ona Jaungoikoaren axuria, ona kentzentuena munduko bekatuak*”, mezatan hostia sagarapenean erabiltzekoa.

Bibliaren arabera axuria, Jaungoikoaren axuriak bezala interpretatu daiteke

- Axuria: bildots, arkume, artxo, ardiantxa, antxu

https://books.google.es/books?id=0le0BgAAQBAJ&pg=PT528&lpg=PT528&dq=lizarraga+axuria&source=bl&ots=--QluuxY08&sig=ACfU3U11BU9IIEAtpVRHai40SUFFH24TJQ&hl=es&sa=X&ved=2ahUKewjKm8_Lg4TpAhVcBGMbHWn_BQYQ6AEwBHoECagQAQ#v=onepage&q&f=false

Badaude ere abestiaren hitzak luzatzen dituenik:

*Axuri beltza ona da, baina
Hobeago da xuria.
Dantzan ikasi nahi duen horrek
Nere oinetara begira.*

Rai...

*Zertan ari haiz bakar dantzatzen,
Agertzen gorputz erdia ?
Su ilun horrek argitzen badik
Ageriko haiz guzia.*

Rai rai rai...

*Arno gorria ona da, baina
hobeago da xuria.
Burua xuxen, zangoak arin,
ez egon uzkur dantzara.*

Rai rai rai...

*Ogi komuna ona da, baina
hobeago da xuria.
Dantzan eiteko jende gizenak
anitz trabatuak dira.*

Rai rai rai...

*Andre gorria eder da, baina
ederrago da xuria.
Dantzari onak ontsa dantzatuz
baduke haren irria.*

Rai rai rai...

Axuri beltza abestiaren jatorrizko hitzen hasierak honela dio:

*“Axuri beltza ona dut baina, **zuria berriz hobe**a”.*

Zuria hobe delarik irakurri genezake, eta beste aldetik Ying-Yang ikurrean zuria gizonezkoa eta beltza emakumezkoa omen denez, abestiaren hitzen interpretazioa itsusitu lezake.

Horrela ba, ordezkoko eboluzionatu bat moldatu litzateke ondoren datorren bigarren esaldia, zortziko handian abesturiko bertsoei atea zabalik utzirik, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko

desberdintasunaren liskar sekularrari eskua luzatuz: *"Axuri beltza ona dut baina, zuria ere ez dut txarra,..."* adibidez.

Aberri Eguna Hondarribian inoiz ospatuko balitz, emakume eta gizonezkoen arteko eztabaidak bolo bolo dabiltzan herriko jaien alarde egunetan, gai hau lantzeko ezin egun aproposagoak lirateke. Politika mailan dagoeneko hedaturik, euskal alderdi abertzaleetako eta alderdi aurrerakoietako kide batzuk feminismoan bat egiten dituzten egunak.

Musikarekin ere bertsio desberdinak daude. Orkestra sinfoniko batek interpretatua kutsu solemneago batean, edo ezagunagoa den Oskorrirena edo ta modernoago den Malakiasena era arras desberdin diren ekitaldietarako.

Oskorriren folk bertsio ezaguna: <https://www.youtube.com/watch?v=FKurkeZXAnc>

Youtuben "Axuri Beltza" bilatuz, hainbat abesbatzek interpretatutako bertsioak auki ditzakegu. Javier Bustorena edo eta Taiwaneko abesbatzarena tartean.

"Kantatzen duen herri bat ez da inoiz hilko!" (Gora herria- Negu Gorriak-Fermin Muguruza)

Nafarroan oraindik jota hau abesten dute: *«Pueblo que canta, no muere/ dicen que dijo el juglar/ y, si es verdad lo que dijo,/ Vasconia no morirá».*

<https://www.youtube.com/watch?v=WvdSYKkB9ls>

Axuri beltza maiz ikusi dugu **dantzatzen** Euskal Herriko plazetan.

1969ko maiatzaren 4ean Donostiako Victoria Eugenia antzokian Argia Dantza Taldearen eskutik estreinatu eta berreskuratu zen Axuri beltza dantza, Juan Antonio Urbeltz-en ikerketei esker (Wikipedia: Axuri beltza).

Dantza dotoreak aipatutako bi pasarte ditu. Lasaia eta bizia. Zuri-beltza. Bertsio onek dituen bi pasarte errepikakorrak, erraz laburtu edo luzatu daitezke egoerak eskatzen duen arabera. (Ikusi Youtube-n: Axuri beltza Aste Nagusia Bilbao)

Jatorrian emakumezkoen dantza den arren, plazan emakumezkoek zein gizonezkoek dantzaz gozatzen ikusi al ditugu. Feminismoa eta berdintasuna alde bietarantz dela erakutsiz. (Youtube: Jauziaren gaua Axuri beltza.

Bakoitzaren ahalmen edo uneko gogoaren arabera, energiarekin dantzatzetik, oinarritzko pausuak leunki eramatera dantzatu edo eta soilik abestu egin daitekeen erritmo atsegin bat da. Ereserkiaren hitzak metaforikoki hartu beharko lirateke dantzatzeko ezintasun bat dutenentzako, erritmoa barnean eraman daitekelarik.

Atzerrian dantzatua, New York-eko euskal etxeak antolatutako dantza ekitaldi baten adibidez (youtube-n: Axuri Urki NY)

"Ez baduzu dantzatzen hilda zaude" (Black is beltza- Fermin Muguruza)

"Un pueblo que canta y baila" Mones Cazón- Argentina

Urbeltzeri elkarrikketa Axuribeltza dantzari buruz eta euskal folklorearen eraberritzeari buruz besteak beste : <https://nabarralde.eus/lel-igualitarismo-de-nuestro-viejo-mundo-impide-el-nacimiento-del-heroer/>

Etb-ko *Itxi liburuak* programan, “Eskulturaren euskal eskola” Aitor Jimenez dantzariak, Eduardo Chillidaren Haize Orratzari egiten dion koreografia programan ikusi daiteke (Interneten, etb Nahieran, ikusi daiteke 20. Minutuan)

“...mundua jantzan jarriko nuke Jainkoa banintza”. Imanolek abesten dituen Xabier Amurizaren hitz ezagunak:

*Mendian gora haritza
Ahuntzak haizean dabiltza
Itsasoaren arimak dakar
Ur gainean bitsa.*

*Kantatu nahi dut bizitza
Usteltzen ez bazait hitza*

***Mundua dantzan
Jarriko nuke jainkoa banintza.***

*Euskal herriko tristura
Soineko beltzen joskura
Txori negartiz bete da eta
Umerez hustu da.
Emaidazue freskura
Ura eskutik eskura
Izarren salda urdina edanda
Bizi naiz gustora.*

*Euskal herriko poeta
Kanposantuko tronpeta
Hil kanpaiari tiraka eta
Hutsari topeka.
Argitu ezak kopeta penak heuretzat gordeta
Goizero sortuz bizitza ere
Hortxe zegok eta.*

***Mundua ez da beti jai
Iñoiz tristeia ere bai
Bainan badira mila arrazoi
Kantatzeko alai.***

*Bestela datozen penai
Ez diet sunk bota nahi
Ni hiltzen naizen gauean behintzat
Egizue lo lasai.*

Dantza edo koreografien indarra

Ukaezina da dantzek herri kulturan daukaten esanahia. Adibidez Afrikako, Sabar Senegaldarrena.

Youtuben ikusgai ere, gaur eguneko bat, sare sozialen bitartez mundu osora zabaldu zen bideo birala (Youtube-n: el violador eres tú)



Argentinarrak badute bere ereserkiaren koreografia: Himno nacional argentino (youtube-n: Argentina baila 2017, homenaje a nuestro Himno Nacional)

Edo ezaguna den Zelanda Berriko Rugby taldearen dantza maoria (youtuben-n: NZ All Blacks Maori 'Haka' War Dance).



Zelanda Berriko Rugbylariek partidaren hasieran dantzatu eta abesten duten bezalaxe, gure selekzioek Axuri beltza dantzatu eta abestu zezaketen, taldearen elkarlana eta kemena goratzeko, mundu guztian erakusgarri. Koreografia bi ataletan banaturik legoke:

- 1- Alde solemnea, dantza zirkulua osatzen duenean. Meditazio momentua. Erronkari aurre egiteko kontzentrazioa bilatuz.
- 2- Dantza bera, kemena eta indarra biltzeko.

VI. IKURRIÑA BERRI BATERAKO AURKEZPEN BIDEOA


Lan honetan proposatzen den Ikurriña berri baterako prestatutako bideoa Youtube-n eskura: “Ikurriñaberria 2020” . Bertan Axuribeltza dantzaren koreografia landuaz gozatu genezake.



VII. XXI. MENDERAKO PROPOSAMEN IREKIA

Euskal herrietako biztanlegoaren artean Ikurriña adostu baten galdeketa ireki bat egingo balitz, Ikurriña berri batentzako proposamenek zabalik egon beharko lukete beste herrialde batzuetan egin den bezala. Hausnarketa herrikoi honen emaitza gaur eguneko Ikurriñarekin jarraitzea gertatuko balitz, berau indar berritua aterako litzateke zalantzarik gabe.

Ikurriñak ikurrin, Lauburuaren pisuaz jabetzea helburu izan duen lan honetan bertan ere, eredu desberdinak aurkeztu dira. Adibidez: EH-ko Ikurrina Berriaren irudietan lauburu desberdinak aurkeztu dira, batzuetan buru bertikalak zuriz agertzen direlarik, eta horizontalak beltzez, ezkererantz biraka, zein eskuinerantz:



Hauetatik azkena hobesteko honakoa hartu da kontutan:

Lauburuak mendeetan ez du izan kolorerik, beraz zuria ala beltza balioesten da.

Beste alde batetik, On Joxe Miel Barandiaranen arabera (hiru.eus) lauburuaren burua bertikalak emakumezkoak dira (Sentikortasuna-pertzepzioa, sua-ura) eta horizontalak gizonezkoak (Energia mentala-energia fisikoa, lurra eta airea). Eta berauen posizioen banaketa egiterakoan, Ying-yang-en arabera, beltza litzateke emakumezkoa eta zuria gizonezkoa.

Beraz buru bertikalak beltzak dira eta horizontalak zuriak izatea proposatu da.

Hala ere, lauburua ikur birakaria denez, bai beltza bai zuria bertikal edo horizontal eran bilakatu litezke.

Biratze norantzakoari buruz ez da aurkitu adostasunik, beraz bat hartzearren, gehien erabiltzen den zentzua aukeratu da.

Azken finean, noizbait lauburua Ikurriñarekin uztartzea denon artean adostuko balitz, hartuko lituzketen forma eta koloreak direnak direlarik ere, apaingarri soil bat izatetik, ez ahal luke lauburuak mereziko toki jasoago bat euskal herriaren Ikurrina **berri** batean adibidez?



Azken hitzak

Euskararen biziraupena etorkizun digitalago batean, Lauburua ikur lagungarri bezala?

"*Euskara da euskaldunon aberria*" zioen Txillardegik, mende erdi bat lehenagoko Sabino Aranaren "*Euzkotarren aberria Euzkadi da*" parafraseatuz. Eta beste mende eta erdi bat beranduago, nahitaez gizadiaren historiako garai berri baten atarian aurkitzen gara. Internet, Sare sozialak, 5G, Big Data, Inteligentzia Artifiziala, Metabersoa... gero eta haundiagoa bihurtzen ari den errealtate paralelo batetan murgilduz goaz pixkanaka. "Aldea global" deritzon mundu globalizatu honetan, eta harremanak era birtualagoan ehuntzen diren aro hasiberri honen aurrean, euskararen presentzia "erreal" ezinbestean ziurtatu beharko litzateke; gure ondorengoei oparituko diegun euskal kultura iraunkortze aldera. Txillardegik berak etorkizuna iragarritz, "*Estatu batekin, agian euskara ez da salbatuko. Estaturik gabe, ziur ezetz*" zioen. Ondorioz, mundu digitalki konektatu batean euskarak ez badu bere presentzia bermatzen, ez litzatekela salbatuko ondorioztatzaera ausartu gintezke.

Egungo ohizko errealtate sozioekonomiko eta politikoa, beste estatu batzuen menpe dauden lau komunitate nolabait homogeneotan banatuta aurkitzen da euskaldunon aberria. Euskadi, Nafarroa, Iparralde eta sarritan ahaztutako Euskal Diaspora alegia; inposatutako mugen eraginagatik poliki-poliki aldenduz doazelarik. Zatiketa horrez gain, euskal gizarte heterogeneoaren ideologia anitzak kontutan hartzen badira, hainbat ikur, ikurriña eta bandera itxuraz erabat desberdin plazaratzen ditugu; nazio zatikatu baten irudia areagotuz. Adibidez, Eusko Jaurlaritzaren agerpenetan, hasiera batean Bizkaia soilik sinbolizatzen zuen Ikurriña, lehendakariaren atzean Nafarroako armarririk gabe ikustaraziz, zein Nafarroako Erreinuko katedun bandera gorria udaletxeetako balkoietan zintzilikatuz, zein Baskoien erregearen Arrano Beltza euskal selekzioaren partidetan astinduz.

Euskaldunen aberri bat lortzeko bidearen hasierako urrats birtualean behintzat, arestian aipatutako banderen bateragarritasunik ezak, ahaleginak sakabanatu eta amestutako itxaropen horri ateak ixten ote dizkion gogoeta egin beharko genuke; nazio eraikuntza prozesuetan ikur eta banderek duten garrantzia aintzat hartuz eta Joseba Sarrionandiaren "*Euskara da gure territorio libre bakarra*" askatasunezko hitzak abiapuntutzat hartuz.

Hala ere, denboraren poderioz ahultzen doan euskal batasun honen "barne" mugez gaindi, pentsakera eta jatorri desberdinetako euskaldunak, eta ez hain euskaldunak, lotzen gaituen ikur polit bezain esanguratsu bat badugu dagoeneko, Lauburua. Euskal Herriaren historian zehar, edozein bazterretan sarritan agertu izan dena; eta gaur egun ere, Euskal-Basque hitzekin, euskal tokiekin edo euskal kutzuko ekoizpen eta produktuekin, berehala lotzen dena. Politika eta ideologiak alde batera utzita, euskal herrietako biztanleen ikur kuttunenetakoa izanik, munduaren begien aurrean herri adeitsu legeaz agertzen gaituena.

Lauburuaren bilakaera historikoa aztertzean, jatorriari dagokionez, Historia Aurreko garaietara garamatza. Erromatar aurreko herrietan zitzelkaturik aurkitu da, Bizkaiko Meñakan, Foruan edo Arabako Iruña-Veleian, adibide batzuk aipatzearen. Esbastika, Triskela, Hexaskela, Tomoe, jing-jang... ikur espiritual primitiboen senide, euskaldunok soilik erabiltzen dugun lau buru borobilduna, Euskal Herrian XVI. mendetik aurrera zabal hedaturik aurki genezake: Nafarroako XV. mendeko eleizetan, XVII. mendeko Zuberoako etxe atarietan, Bizkaiko hilerrietan... eta jadanik euskal zentzua erabat barneraturik, Arabako Izki mendilerroko oroitarrian, Biarritzeko oihal saltokietan, Tolosaldeko kirol elkarte baten izenean edo Montevideo, Tokio, zein Shangaiko Euskal-Etxeetako anagrametan esaterako. Apaingarri soil bat baino gehiago, Lauburuak euskal sena daukanik ezin uka. Nabarmenki, euskal usaina darian ekoizpenak argi identifikatzeko aspalditik erabili izan da, eta erabiltzen dugu: Edozein motatako euskal oroigarrietan, harriz edo egurrez egindako lanetan, eratzun zein lepokoetan, euskal pasteletan, jantzietan, musika tresnetan....edo betirako den tatuaje bat gorputzaren azalean egiteraino.

Baina ez al dago batzuentzat Pays Basque-ko objektuen irudi folkloriko soil bat bihurtzeko arriskuan? Ez al da aintzinako garaietatik datorkigun altxorra, euskara, eta Lauburuaren arteko zilbor hestea ahultzen ari? Euskaradun arbaso haiei ohore eginez, Lauburua begien aurrean dugunean, beraien begirada zorrotza somatu beharko genuke.

Aintzinatik datorkigun misterioz betetako irudizko ondare hau, gaur egun Euskal Herriko edozein bazterretan barreiaturik aurki dezakegu, ez aldiz euskaldunen hizkuntza den euskara;

Koldo Mitxelenak euskarari buruz zioenez, nola bizi iraun duen gaur egunerarte omen da misterioa. Hala ere, Iparralden dugu azken mendeetako euskararen gainbeheraren adibiderik esanguratsuenak. Bertan, euskarak bizirik irauteko eskergabeko ahalegin etengabea behar du, aldiz, Lauburuak irudi sendo baten gisa biziraungo duela argi dago; Lapurdin, Nafarroa Beheran edo Zuberoan erruz ikusi bait dezakegu.

Lauburua, XX. mendeko Guda Zibila aurretik Sabino Aranak abertzaletasun eta aldarrikapen ikur moduan bultzatu zuen, eta nabarmenki hedatu zen berriro ere Euskal Herrian zehar. Alabaina, folklore hutsa bihurtzeko arriskuan dagoelarik, datorren garai berri digitalerako, euskararen esku beretik eramateko zilegitasuna bultzatu beharko genuke. Historian beste behin bere sustraieratik berreskuratua, euskararen aberriari gainera datozkion erronka eta ekaitzei adorez aurre egiteko, indarrak bildu eta bideratu ahalko lituzkeen ikur esanguratsu hau, bidelagun jatorra litzaiguke.

Sabino Arana bezalako euskaldun berriak, euskaldun zaharrak, eta jatorria edozein dela ere, bakoitza bere neurrian euskaltzaleak direnak, joera politikoak alde batera utzita, polita soilik ez den irudi honek, bere lau besoekin nolabait biltzen gaitu geure burua euskal herritartzat dugun denok.

Horrenbestez, ikur honen ahalmenaren jabe, garai berri honetarako euskararen aurrerakadarekin sinistu nahi dugunok, euskal nazio ezaugarri diren bandera eta ikurrinen artean, ez al genioke Lauburuari toki jasoago bat emateko eztabaida zabala sortu beharko? Behingoz, Nafarroako bandera, Nafarroako Foru Erkidegorako mugatua, eta Aranatarren Ikurriña, Euskal Autonomi Erkidegorako soilik mugatuta daudela heldutasunez aitortzeak, atzera pausu txiki bat litzateke hasiera batean gehiengoarentzako, baina ausartasunez aurreranzko jauzi handiago bat egiteko prest egonik, eguneratzeko aukera eder baten aurrean geundeke Euskal Herri globala biltzen duen Lauburudun Ikurrina Berri bati bidea zabalduko bagenio.

Gai honi buruz, mota guztietako abertzaleetatik hasi, edo euskaltzale soil diren guztion jarrerak eta ekimenak biltzeko xedearekin, lan mardul bat egin da. Eginkizun honetan, Lauburua, Nafarroako bandera, Ikurriña eta euskarari buruzko informazio bilaketa amaigabea, sailkaketa eta laburpena jorratu dira; Google bilatzailean "Lauburu" hitza bilatuz gero 380.000 sarrera agertzen dira, "Ikurriñ(n)a"-rekin beste 695.000 eta "Bandera de Navarra"-rekin 783.000. Horrez gain, gogoetara gonbidatu nahi duen lan eklektiko honetan, euskal idazle, pentsalari eta abarren esanei erreferentzia egiten zaie. Arestian aipatutako guztia uztartzen saiakera ahalik eta adeitsuena eginez, eta ilusio handiz sormenari ere beta emanez, Lauburudun Ikurrina Berri baten proposamen txukun bat ere aurkeztu da bertan. *"Lauburua, euskal nazioaren ikur? Arbaso euskaldun haiengandik, aintzinako ikur unibertsalen senide jator bat datorkigu gaur egunera euskararen ilinti gisa. Benito Lertxundiren abestiak dioten bezalaxe: Suaren bila atera ziren surik etzuten haiek, ikusmenaren mugaz gaindi dauden lurretara... Maitasuna bilatu gabe, aurkitu beharreko zerbait dela. Eta euskal nazio ikurretan armoniaren bila, Lauburu zuri-beltz bat aurkitu da!"*

Hausnarketa egin eta foroetan zabaldu eta parte hartzera zabal hartzen zaituztegu, denon artean eztabaidatu, eta azkenean Lauburuarekin alderatuta berriak diren 1150. urteko Nafarroako Bandera pomelatua eta 1894. urteko Aranatar anaien Ikurriña bigurutzeduna, nazio ikur moduan gelditzeko adostutako erabakia hartuta ere, tamalez gaur egunean esanahi anbiguo hartu duten bi banderok indarberrituak aterako liratekelarik.

Lauburuaren Biltzarra